

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
Jarduera Fisikoaren eta Kirol Zientzien Gradua
KURTSOA: 2020-2021

LIZARRALDEA IKASTETXEKO DBH 1. ETA 3.
MAILAKO GORPUTZ HEZKUNTZAKO
AZTERKETA PEDAGOGIKOA

AUTOREA: Asier Landa Gaviria

ZUZENDARIA: Joseba Etxebeste Otegi

Data, 2021ko irailaren 21a

LABURPENA

Lan honetan Lizarraldea BHI ikastetxeko heziketa fisikoko saioretako azterketa pedagogikoa egin da. Bertan DBH 1.G eta 3.G klaseetan egindako ariketak erregistratu eta sailkatu dira. Klaseen behaketa osotara 12 aste iraun du, 2020ko Abendutik 2021eko Martxoak arte.

Sailkapena egiteko ariketen barne logika kontutan izan da, harreman sozialak, denbora, espazioa eta tresnen erabilera aztertuz. Honetaz gain, egindako ariketak, irakasleek, eskolak eta Nafarroako gobernuak proposatutako helburuekin bat datozen aztertu da, betebeharrak egin diren edo ez ikusiz.

ABSTRACT

In this work, a pedagogical analysis of the physical education sessions of the Lizarraldea BHI secondary school has been made. In order to do the analysis, the exercises carried out in the 1st and 3rd year of secondary education were recorded and classified. The observation of the classes was made during 12 weeks, since December 2020 until March 2021.

For doing the classification, the internal logic of the exercises has been taken into account. Therefore, social relationships, time, space and the use of tools have been studied. In addition to this, the study if the exercises match the objectives of the teachers, the school and the government of Navarre has been made.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. AZTERKETA PEDAGOGIKOAREN HELBURUAK	2
3. MARKO TEORIKOA	3
3.1 HEZIKETA FISIKOA	3
3.2 PRAXIOLOGIA MOTORRA	4
3.3 BARNE LOGIKA.....	4
3.4 KANPO LOGIKA	5
3.5 JARDUERA FISIKOAREN GARRANTZIA	6
4. METODOLOGIA	7
4.1 PARTE HARTZAILEAK.....	7
4.2 PROZEDURA.....	7
4.3 ALDAGAIK.....	7
5. LIZARRAKO LIZARRALDEA BHI IKASTETXEKO GORPUTZ HEZKUNTZAKO EDUKIEN AZTERKETA	9
5.1 ESKOLAKO TESTUINGURU PEDAGOGIKOA	9
5.2 IKASTETXEKO PROGRAMA	11
5.3 HEZIKETA FISIKOKO ORDUEN BANAKETA.....	12
5.4 COVID PROTOKOLOA.....	13
5.5 EDUKIAK, HELBURUAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK.....	13
5.6 SAIOETAN LANDUTAKO ARIKETAK ETA JOKO-JOLASAK	16
5.7 NAFARROAN GORPUTZ HEZKUNTZAN LANDU BEHARREKO DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO CURRIKULUMA.....	22
5.8 IKASTETXEAREN HELBURU OROKORRAK.....	28
5.9 LIZARRALDEA IKASTETXEKO GORPUTZ HEZKUNTZAKO BARNE LOGIKAREN JARDUEREN ANALISIA	30
5.10 LIZARRALDEA IKASTETXEKO GORPUTZ HEZKUNTZAKO KLASE BAKOITZAREN BARNE LOGIKAREN ANALISIA	34

a) Lizarraldea ikastetxeko gorputz hezkuntzako DBH 1.G klasearen barne logikaren jardueren analisisa	34
b) Lizarraldea ikastetxeko gorputz hezkuntzako DBH 3.G klasearen barne logikaren jardueren analisisa	37
6. LIZARRALDEA BHI IKASTETXEKO GORPUTZ HEZKUNTZAKO EDUKIEN ETA ESKOLAKO HELBURUEN ARTEKO LOTURA	41
7. BIBLIOGRAFIA	42

1. SARRERA

Lan honen helburua, Lizarraldea BHI institutuan DBH 1. eta DBH 3. mailen heziketa fisikoko irakasgaien ezarritako edukiak eta unitate didaktikoak klaseetan sortutako saioekin alderatzea da. Honetaz gain, Nafarroan, ikastetxetan eta irakasleek proposatu eta bete behar dituzten helburuak sortutako ariketekin bat datozen edo ez aztertu da. Horretarako, barne logika kontutan izan da arlo desberdinak aztertzeke.

Txikitan izandako esperientzian oinarrituz, ikasleek emaitzei ematen diote garrantzi handiena eta ez ikasle bakoitzak ariketa ezberdinak eskaintzen dien ahalegin eta esfortzuari. Azken finean, pertsona bakoitza, eta gainera DBH-ko adinetan, ezaugarriak oso desberdinak dira eta froga berdinekin ikasle guztiak baloratzea zaila da.

Nire bizitza beti kirolarekin lotuta egon da. Txikitatik kirola egin dut eta beti eskolan zein institutuan gehien gustatzen zitzaidan irakasgaia heziketa fisikoa zen.

Gai hau egitea erabaki dut alde batetik, betidanik nire helburua heziketa fisikoko irakaslea izatea izan delako, hortaz oso aproposa iruditu zait gai hau jorratzea. Gainera, DBH-a ikasi nuen institutuan aztertu ditut klaseak, beraz irakasle ezberdinek zer nolako lana egiten duten aztertzeke aukera izan dut. Beste alde batetik, zein ariketa mota erakusten den ikasteko oso baliagarria da ariketa hau.

Horretaz gain, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduako derrigorrezko praktikak Gasteizko institutu batean egin ditut (Lakua institututan). Bertan, heziketa fisikoko irakaslea izatea nolakoa den ikusi dut pertsonalki, eta bizitako sententzioak eta esperientzia hasieratik daukadan ideia berretsi dit.

Bestalde, pentsatzen dudalako eta demostratu egin da, gaur egun kirola egitea onura ikaragarriak dakarrela eta nire ustez, txikitatik kirola egiteko ohitura hori ikasleetan barneratzea oso garrantzitsua da. Ohitura horiek barneratzeko, institutuan egiten diren klaseak eta ariketak interesgarriak eta dinamikoak izatea ezinbestekoa da eta irakaslearen papera oso garrantzitsua da, motibazioa eta inplikazioa ezinbestekoak izanda.

2. AZTERKETA PEDAGOGIKOAREN HELBURUAK

Lan honen helburua, DBH 1. eta 3. mailako klaseetan Heziketa Fisikoko irakasgaien lantzen diren saioak eta ariketak aztertzea eta hauen analisia burutzea da. Honetaz gain, irakasleek eta Heziketa Fisikoko departamenduak landu behar dituzten helburu, eduki eta unitate didaktikoak betetzen eta jarraitzen diren aztertu nahi da, prestatzen diren saioak eskolak bultzatzen dituen helburuekin bat datozen aztertuz.

Aurreko lerroetan esan dena kontuan hartuz, hauek dira azterketa pedagogikoan aintzat hartu diren helburuak:

- Lizarraldea institutuko heziketa fisikoko azterketa pedagogiko bat egitea, hau da, gorputz hezkuntzako betebeharrak eskolak bultzatzen dituen pedagogiarekin bat datorren ala ez aztertzea.
- Lizarraldea institutuko heziketa fisikoko irakasgaia, urteen arabera irakasten den pedagogia berdina den ala ez aztertzea.
- Lizarraldea institutuko DBH 1.G eta 3.G mailako Heziketa Fisikoko klaseetan proposatu diren ariketa eta joko-jolas ezberdinen edukiak eta informazioa bildu eta aztertu.
- Lizarraldea institutuko DBH 1.G eta 3.G mailako Heziketa Fisikoko klaseetan proposatu diren ariketa eta joko-jolas ezberdinen barne logikaren analisia egin.

Helburu hauek aztertzeko eta aurrera eraman ahal izateko, hurrengo prozedura jarraitu da: hasteko, saio guztiak ikastetxean bertan behatu dira. Bertan, klase guztietan landu diren ariketa eta joko-jolas ezberdinen informazioa lortu eta jaso da. Ondoren, datu horiek elkartu eta Excel batean bildu dira, taula eta grafiko ezberdinak garatuz, zenbait aldagai kontutan izanda: harreman sozialak, espazioaren kontzepzioa, denboraren nozioa eta kultura materialak.

3. MARKO TEORIKOA

Marko teorikoari dagokionez, azterketa pedagogikoaren justifikazio teorikoa egin da, funtsezko kontzeptu batzuk azalduz. Horretarako, heziketa fisikoa (definizioa), praxiologia motorra, barne eta kanpo logika eta jarduera fisikoaren garrantzia era laburrean azaldu dira.

3.1 HEZIKETA FISIKOA

Heziketa fisikoari buruz hitz egin aurretik, garrantzitsua da heziketaren definizioa jakitea. Heziketa, pertsona bakoitzaren hazkundera edo garapena da eta sozietatearen bidez prozesu hau erraztu egiten da. Garapena hitza modu askotan eman daiteke, esaterako, aldatu, egokitu, integratu, sortu, eraiki... garapen hau ingurunearekin ematen da eta ingurune hori ingurune sozial bat da (Lucio, 1989).

Heziketa fisikoa, jokabide motorren pedagogia da (Parlebas, 1993). Definizioa ulertzeko, jokabide motorra eta pedagogia kontzeptuak garatu beharko dira. Pedagogia heziketari buruzko gogoeta egiten denean agertzen da. Zientifikoki metodoen eta prozeduren jakintza sistematikoa da, diziplina teoriko-praktiko baten konfigurazio bezala (Lucio, 1989). Jokabide motorra, jarduera fisikoaren bi aspektuak hartzen ditu. Alde batetik, portaera motorraren datu objektiboak, hala nola, espazioan eta denboran ematen diren desplazamenduak, keinuak, besteekiko erlazioak... Bestalde, norbanakoaren ekintza subjektiboak ematen dira, hala nola, motibazioa, erabaki hartzeak, afektibitatea... Hortaz, jokabide motorraren bidez izendatzaile komun bat ateratzea posiblea da jarduera fisiko guztiak aztertzen direnean (Parlebas, 1993).

Praxiologia motorra kontutan izanda, joko eta jolasen egituren sailkapena kontutan izan behar da eta horretarako Pierre Parlebasek sailkapen bat egin zuen. Sailkapen hau pertsona batek besteekiko egiten duen elkarrekintzan oinarritzen da.

1. Egoera psikomotorrak: Ez da elkarrekintza motorrik ematen.
2. Egoera sozio-motorrak: Elkarrekintza motorra ematen da.
 - a. Kolaborazio egoerak: Ariketa egiterakoan ematen den elkarrekintza kolaboraziozkoa da.
 - b. Oposizio egoerak: Ariketa egiterakoan ematen den elkarrekintza oposiziozkoa da.
 - c. Kolaborazio-oposizio egoerak: Ariketa egiterakoan ematen den elkarrekintza kolaboraziozkoa eta oposiziozkoa da (Parlebas, 1981).

3.2 PRAXIOLOGIA MOTORRA

Praxiologia motorraren ezaguera “akzio motorra” da. Akzio motorra pertsona batek baldintza batzuk kontuan izanda, multzo antolatu eta testuinguru batean, hartzen duen zentzuari deritzo. Baldintza horiek helburu motor batzuk definitu behar ditu (Hernández Moreno eta Rodríguez Ribas, 2004).

Adibidez, futbol partidu batean, akzio motor bat zure taldeko kide bati pase bat egitea izan daiteke, non pase hori beste atearen norabidea darama, areriorik gabe. Pasea tenkatua eta aurrerantz doa, eta gure helburua beste atean gola sartzea da.

Akzio motorra praktika fisikoetan edo ekintza fisikoetan agertzen den elementu komuna da. Beste ekintza batzuetatik desberdinu daiteke helburu motor bat duelako, hau da, pertsonen motrizitatearen espresioa bilatzen du (Hernández Moreno eta Rodríguez Ribas, 2004).

Hortaz, garrantzitsua da kontutan izatea, pertsonaren parte-hartze zuzena bermatu behar dela jokoaren parte dena denbora eta espazio konkretu batean. Horregatik ekintza sinbolikoak edo birtualak kanpoan geratu behar dira. Adibidez, pertsona baten ekintza fitxa edo agindu batzuegatik ordezkatzeko denean, xakearen kasuan esaterako (Lagardera Otero eta Lavega Burgués, 2003).

Bestalde, akzio motor asko araudiaz at daude. Hauek, akzio motor adierazgarriak edo espresiboak dira. Akzio motor hauetan, beste pertsonengan espresatzeko nahia bilatzen da, sentazio desberdinak transmititzen saiatuz (Lagardera Otero eta Lavega Burgués, 2003).

Laburbilduz, praxiologia motorra, ekintza praktikoetan aurkitu daitezkeen akzio motorrak ikertzen ditu (Hernández Moreno eta Rodríguez Ribas, 2004).

3.3 BARNE LOGIKA

Barne logika egoera motor batean ematen diren ezaugarri adierazgarrien multzoa da eta akzio motorrean eragina dauka. Zuzenki joko edo jolasen arauetan sartzen dira eta honek jokalarietan portaera konkretu batzuk ematea suposatzen du barne logiken ezaugarriak aldatuz (Parlebas, 2001).

Araudiaren eraginez, sortzen diren ekintzak ingurumen natural edo artifizialean eman daitezke, edo talde kirol ezberdinetan material ezberdinen erabilera adierazten da esaterako. Honetaz gain, arau hauek, egoera bakoitzean ematen den barne logika baldintzatzen dute eta ekintza bakoitza desberdina izatea sortarazten du jokalarien portaera motorra aldatuz (Parlebas, 2001). Araudia hortaz, joko edo jolas bakoitzean akzio konkretuak definitzen ditu eta parte-hartzaileengan jokabide motor batzuk aurre orientatzen ditu. Barne logikaren elementu bezala, esaterako, denborarekiko, kidearekiko eta arerioarekiko erlazioa aintzat hartu daiteke (Parlebas, 2010).

Barne logika aztertzerakoan, aldagai batzuk aztertu daiteke. Aldagai hauek espazioa, harremanak, denbora eta objektuak dira. Aldagai hauek arauen bidez finkatuak daude (Urdangarin Liebaert eta Etxebeste Otegi, 2005).

Espazioari dagokionez, bi multzotan banatu daiteke: espazio ziurrak eta espazio ziurgabeak. Espazio ziurgabeetan ikasleak ingurunearen irakurketa etengabe bat egin behar du. Kontran, espazio ziurretan, ingurune hori ezaguna da. Honekin batera, ezaugarri honek ere hurbiltasunarekin erlazionatuta dago, etxea ideiarekin. Etxetik gertu egiten diren joko eta jolasak segurtasuna adierazten dute eta urruntasuna handitzen den heinean arrisku hori igoarazten da (Urdangarin Liebaert eta Etxebeste Otegi, 2005).

Harremanei dagokionez, joko eta jolas psikomotorrak eta sozio-motorrak aurkitu daitezke. Joko eta jolas psikomotorretan, beste ikasleen akzio motorra ez dauka garrantzirik. Baloratzen dena ikasle horren gaitasun eta trebetasun indibiduala da. Aldiz, joko eta jolas sozio-motorretan, komunikazio motorra ematen da eta ikasle horrek beste ikasleekiko erabakiak hartu behar ditu (Urdangarin Liebaert eta Etxebeste Otegi, 2005).

Denbora aztertzerakoan, arauak joko edo jolasen amaiera zehaztu dezakete. Hau gertatzerakoan irabazlea bat dago eta arrakasta bilatzen da. Bestalde, arauen bidez zehaztutako amaiera gabeko joko edo jolasak aurkitu daitezke. Kasu honetan, ez dago garailerik eta hortaz, ez da arrakasta bilatzen (Urdangarin Liebaert eta Etxebeste Otegi, 2005).

Azkenik, objektuen erabilpena dago. Arauak zehazten dute ikasle batek objektuekin egin dezakeen akzioa (Urdangarin Liebaert eta Etxebeste Otegi, 2005).

3.4 KANPO LOGIKA

Aurretik aipatu den bezala, barne logika joko edo jolasen ezaugarri adierazgarrien multzoa da. Kanpo logikan aldiz, ingurune sozialen edo kulturaren ezaugarriak aztertu behar dira eta horretarako etnomotrizitatea terminoa azaldu beharra dago (Parlebas, 2001).

Etnomotrizitatea praktika motorren arloa dira, kultura eta inguru sozialaren garapenetik ikusita (Parlebas, 2001). Helburuetako bat joko eta jolasen barne logika eta kanpo logikaren arteko erlazioa erakustea da. Adibidez, barne logikaren denboraren aldagaia aztertzerakoan ikustea mutilen joko eta jolasak lehiakortasun handiagoa daukaten edo kontran, nesken joko eta jolasa izatea lehiakortasun handiagokoak (Joseba et al., 2015).

3.5 JARDUERA FISIKOAREN GARRANTZIA

Jarduera fisikoa arlo garrantzitsua bilakatu da eguneroko bizitzan. Izan ere, behin baino gehiagotan egiaztatu da onura esanguratsuak dakartzala nerabezaroan dauden haurretan, esaterako, arnasteko ahalmenean, muskuluetan eta hezur osasunean. Gainera, onura psikosozialak ere baditu (OME 2021).

Osasunaren mundu erakundea (OME) nerabezaroan dauden haurrek gutxienez 60 minutuko jarduera fisikoa egitea gomendatzen du intentsitate altu edo handietan. Jarduera fisikoa joko-jolas edo kirolen bitartez egin daiteke edota heziketa fisikoa eginez. Gomendio hauek soilik bost pertsonetatik bat betetzen duela kalkulatuta dago. Neska eta mutilak konparatuz, aurreko datua nesketan portzentaje altuagoa batekin ematen da (OME, 2021).

Herrialdeek jarduera fisikoaren praktika igoarazteko, ezinbestekoa da ingurumen eta aukera egokiak eta seguruak sortzea haur guztiek jarduera fisikoa praktikatzeko (OME, 2021).

4. METODOLOGIA

Metodologiari dagokionez, lana nola burutu den azalduko da azterketa pedagogikoan parte hartu duten klase eta ikasleen informazioa azalduz, erabili den prozedura esplikatur eta datuak aztertzeko kontutan izan diren aldagaiak erakutsiz.

4.1 PARTE HARTZAILEAK

Lana garatzeko, Lizarra hiriko Lizarraldea BHI ikastetxeko heziketa fisikoko bi maila ezberdineko klaseak aztertu dira, hauek DBH 1.G eta DBH 3.G klaseak izanik. Azterketa bigarren eta hirugarren hiruhileko saioak kontutan hartuz egin da eta aipatzekoa da aztertutako saio gehienak bigarren hiruhilekoak direla.

Alde batetik, DBH 1. mailako G klasea aztertu da. 20 ikaslez (12 mutil eta 8 neska) osatutako euskara ereduko klasea da. Beste aldetik, DBH 3. mailako G klasea aztertu da. Kasu honetan ere, euskara ereduko klasea da, eta 23 ikaslez osatua dago (14 neska eta 9 mutil). Aipatzekoa da klase hauetan irakasle ezberdinek irakasten dutela gorputz heziketa.

Aztertutako lehenengo saioa abenduaren 17an izan da eta azkenekoa martxoaren 25ean. Osotara, lehenengo mailan hamabi saio aztertu dira eta hirugarren mailan hamar saio.

4.2 PROZEDURA

Klase hauek behatzeko prozedura beti berdina izan da. Hasteko, ikastetxera presentzialki joan egin da eta saioetan landu diren ariketa eta joko-jolas ezberdinak apuntatu dira, behaketa kuantitatibo bat eginez. Ondoren, datu horien bilketa egin eta Excel batean jarri dira taula eta grafiko ezberdinak garatuz.

Azterketa pedagogikoa burutzeko behaketa eta informazioa apuntatu eta egiteaz gain, irakasle bezala ere parte hartu egin da ariketa ezberdinetarako behar den materiala prestatzen eta jasotzen, eta ariketa desberdinak egiterako orduan *feedback-a* ikasleei eskainiz.

Azkenik, behaketa eta informazioa jaso eta gero, eta Exceletik ateratako taula eta grafikoak aztertu eta gero, aurretik aipatutako helburuak betetzen diren edo ez ikusi da, datuen konparaketa bat eginez.

4.3 ALDAGAIK

Aldagaiei dagokionez, analisi kuantitatibo bat egin da. Aurretik aipatu den bezala, saio guztietan landu diren ariketa eta joko-jolasak jaso eta Excel orri batean taula eta grafiko ezberdinak atera dira, grafikoen interpretazio bat eginez.

Ariketa eta joko-jolas ezberdinak sailkapen konkretu baten arabera ezberdindu dira barne logika zein den aztertuz.

Sailkapena lau arloetan banatu da. Arlo guztietan jokoa, jolasa edo ariketa nolakoa den kontuan hartu da. Hona hemen lau sailkapen motak:

- Ikasleek izandako harremanak: psikomotorrak edo sozio-motorrak (kolaborazioa/oposizioa/kolaborazio – oposizioa)
- Espazioa: Espazio ziurra edo ziurgabea
- Denbora: Memoriaduna edo memoria gabea
- Tresnen erabilera: Tresnaduna edo tresna gabea

5. LIZARRAKO LIZARRALDEA BHI IKASTETXEKO GORPUTZ HEZKUNTZAKO EDUKIEN AZTERKETA

Atal honetan Lizarrako Lizarralde BHI ikastetxearekin zer ikusia duten arolak azaldu dira, hala nola, testuingurua, heziketa fisikoan landu beharreko programa, klaseen funtzionamendua eta irakasleek landu dituzten helburu eta ebaluazio irizpideak. Honetaz gain, Nafarroak eta ikastetxeak ezartzen dituen helburuak jarri dira. Azkenik, ariketa eta joko-jolas ezberdinen barne logikaren analisia aztertu da grafiko ezberdinak erabiliz.

5.1 ESKOLAKO TESTUINGURU PEDAGOGIKOA

Gradu Amaierako Lana burutzeko, Estella-Lizorra hirian (Nafarroa) kokatutako IES Tierra Estella / Lizarralde BHI institutu publikoan (1. Irudia) heziketa fisikoan lantzen diren edukien azterketa pedagogikoa aztertu da.



1.Irudia. Lizarralde BHI institutua.

Institutu honetan Lizarrako gazteez gain, inguruetan dauden herrietako gazteek ere ikasketak burutzen dituzte. Batez ere, DBH 2. maila amaitu eta gero, izan ere, haien herrietan eskolak txikiagoak dira eta bertan DBH 3. eta 4. mailak eta batxilergoa ez dira irakasten. Horretaz gain, Lizarran batxilergoa euskaraz soilik ikastetxe honetan egin daiteke eta hortaz, Lizarra Ikastolatik DBH-a amaitzen duten ikasleek institutu honetara etortzen dira.

Ikastetxean A, G eta D ereduak erakusten dira. Halaber, A eta G ereduaren barnean beste bi programa aurkitu daitezke, Frantsesa eta Alemaniara ikasteko, hain zuzen ere.

Instalazioei dagokienez, 2. Irudian ikusi daitekeen moduan, institutu honetan estalita dagoen polikiroldegi bat aurkitu daiteke. Polikiroldegi horrek bi zelaietan banatzen da. Zelai bakoitzak areto-futboleko dimentsioak dauzka eta bertan posiblea da areto-futbola, saskibaloia, boleibola eta badmintona jokatzeko (lurzoruan marra horiek margotuak daude).



2. Irudia. Lizarraldea BHI institutuko polikiroldegia.

Kanpoan, zelai gehiago aurkitu daitezke, hala nola, areto-futboleko zelai bat eta saskibaloiko beste bi (3. Irudia). Gainera, ikastetxe ondoan mendia aurkitu daiteke eta natur ekintzak eta orientazioa lantzeko oso leku aproposak dira.



3. Irudia. Lizarraldea BHI institutuko kanpoko zelaiak.

Azkenik, aipatu beharrekoa da ikastetxean ematen den kultura-aniztasuna, neska, mutil, arraza edo etnia guztietako ikasleak aurkituz.

5.2 IKASTETXEKO PROGRAMA

Institutuan, maila bakoitzaren arabera Unitate Didaktiko (UD) batzuk landu behar dira. Irakasleek, departamenduarekin batera, UD hauek zeintzuk diren erabakitzen dute, eta horren arabera irakasle bakoitzak nahi dituen ariketak programatzen ditu klase bakoitza aurrera eramateko.

Landu behar diren UD-ak hiruhilero aldatzen dira eta irakasgaiaren ebaluazioan hiru atal hartzen dira kontutan (jarrera, arlo praktikoa eta arlo teorikoa). Maila bakoitzaren arabera arlo bakoitzari dagokion portzentajea aldatu egiten da: maila igotzen den heinean, jarreraren garrantzia txikitu eta arlo teorikoaren garrantzia handitu egiten da.

Kasu honetan, heziketa fisikoko DBHko lehenengo eta hirugarren mailetako UD-ak dira kontuan hartu beharrekoak, hauek direlako aztertutako klaseak.

DBH 1. Maila

Lehenengo hiruhilekoan hiru UD landu behar dira:

- Beroketa eta egokitzapen fisikoa
- Orientazioa eta xenda-zaletasuna
- Tresnak erabili behar diren jokoak

Bigarren hiruhilekoan hiru UD landu behar dira:

- **Nafarroako dantzak / Gorputz-espresioa / Malabareak (pilotekin)**
- **Joko eta Kirol popular eta ekologikoak**
- **Lehen laguntza – sorospena**

Hirugarren hiruhilekoan bi UD landu behar dira:

- **Atletismoa**
- **Floorball eta Futbeisbol**

DBH 3. Maila

Lehenengo hiruhilekoan hiru UD landu behar dira:

- Egokitzapen fisikoa eta malgutasuna
- Orientazioa eta xenda-zaletasuna

- Tresnak erabili behar diren jokoak

Bigarren hiruhilekoan hiru UD landu behar dira:

- **Erritmoa: Kapoeira / Aerobic / Zumba**
- **Badminton**
- **Lehen laguntza – sorospena**

Hirugarren hiruhilekoan bi UD landu behar dira:

- **Floorball**
- **Distantzietako jokoak**

Kasu honetan, beltzez ageri diren hiruhilekoak dira interesgarriak direnak, hiruhileko horietan aztertu baitira klaseak (batez ere, bigarren hiruhilekoan).

Bigarren hiruhilekoa azaroaren 23an hasi eta martxoaren 5ean amaitu da eta ebaluazio egunak martxoaren 9,10 eta 11-an izan dira.

Hirugarren hiruhilekoa martxoaren 8an hasi eta ekainaren 21an amaitu da eta ebaluazio egunak ekainaren 8, 9 eta 10-ean izan dira.

Oso tara hamar eta hamabi saio artean aztertu dira maila bakoitzeko, saio bakoitza bi orduko iraupena izanik.

Lehenengo mailan 12 klase aztertu dira (24 ordu). Hamabi klase hauetatik, bederatzi bigarren hiruhilekoan egin dira eta hiru hirugarren hiruhilekoan. Hirugarren mailan aldiz, 10 klase aztertu dira (20 ordu). Kasu honetan ezin izan dira klase gehiago behatu bi egunetan klase kanpoko ekintzak egon baitziren. Hamar klase hauetatik, bederatzi bigarren hiruhilekoan eman dira eta beste bat hirugarren hiruhilekoan.

5.3 HEZIKETA FISIKOKO ORDUEN BANAKETA

Bai lehenengo, bai hirugarren mailako klaseetan astero bi orduz egiten da Gorputz Heziketa. 1.G gelak ostegunetan lehenengo eta bigarren orduetan (8:15-10:05) dauka irakasgai hau, eta 3.G gelak egun bereko hirugarren eta laugarren orduetan (10:25-12:15). Irakasgaiak astero dauzkan bi orduak jarraian burutzen dira, eta horrek bere abantailak eta desabantailak izan ditzake.

Abantailei dagokionez, denboraren aldetik, agerikoa da bi ordu izanda askoz gehiago aprobetxatu daitekeela. Azken finean, klasea hasterakoan ikasleak klaseetatik polikiroldegira joan behar dira, eta klasearen ondoren haien geletara itzuli beharko dira, eta honek denbora galtzea dakar. Modu honetan, behin egiten da eta horrek denbora aurrezteak dakar, klasearen aprobetxamendua handiagoa izanik.

Honek, helburu edo eduki gehiago jorrazteko aukera ematen du, edo helburu edo edukiak modu zabalagoan garatzeko.

Desabantailen aldetik, denbora gehiago izanda, ariketa gehiagoren beharra dago saio bakoitzean. Gainera, klaseak luzeagoak direnez, dibertigarriagoak eta entretenigarriagoak diren ariketak bilatu behar dira astunegiak ez bilakatzeko. Errazagoa da klasea astuna izatea bi ordu iraun ezker, eta honek ikasleen kontzentrazioa eta gogoia murriztu dezake. Gainera, astero soilik egun batean egiten dute kirola, eta klase bakoitzean lantzen diren kontzeptuak galtzea errazagoa da astean bitan egitearekin alderatuz.

5.4 COVID PROTOKOLOA

Covid 19 gaixotasuna dela eta, klasea emateko modua aldatu egin da eta neurri asko hartu behar izan dira ikasle eta irakasleen segurtasuna bermatzeko. Horregatik, Lizarralde BHI institutuan, protokolo bat jarraitu behar da klase osoan zehar.

Hasteko, polikiroldegian sartzekoan, ikasle zein irakasleek gel higienizatzailea ematen dute eskuetan, eta ikasle bakoitzak polikiroldegiko bazterretan zenbaki bat dauka motxila, berokia, eta beste edozein gauza bertan uzteko.

Aldagelak ezin dira arropa aldatzeko ezta dutxatzeko erabili, hau da, kiroleko arropa etxetik jantzia eraman behar dute, eta aldageletara soilik komuna erabiltzeko sartu daiteke. Gehienez lau pertsona batera sar daitezke komunera.

Ahal den neurrian, ikasleek materiala etxetik ekarri behar dute (malabareak egiteko pilotak, badmintoneko erraketa...) eta biltegian dagoen materiala erabiltzen denean, gordelekura itzuli baino lehen, desinfektatu behar da.

Horretaz gain, ikasle guztiek maskararekin egiten dute klasea eta une oro jarrita eraman behar dute, beraz intentsitate handiko ariketak egiterako orduan zailtasun bat egon daiteke.

Eskuak eman behar dituzten ariketak saihestu behar dira. Hau betetzen ez denean, esaterako, dantza batzuk egiterakoan, eskuak eman baino lehen eta ondoren gel higienizatzailea erabili behar da.

Klasea burutzeko erabiltzen diren gelak, beti atea irekia izan behar dute. Gainera, biltegiko ateak irekiak daude denbora osoan.

5.5 EDUKIAK, HELBURUAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Unitate didaktikoak argi izanda, hauek izan dira irakasleek maila bakoitzean kontutan izan dituzten edukiak, helburuak eta ebaluazio irizpideak, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan:

1. DBH MAILA (1.G GELA)

2. EBALUAKETA

EDUKIAK

- Ekintza motorrak arte edo adierazpen egoeretan.
- Gorputzaren adierazgarritasuna: jarrera, keinua eta mugimendua.
- Euskal dantzak.
- Malabareak.
- Beroketa eta horren esanahia jarduera fisikoa egitean.

HELBURUAK

- Gorputzaren kontzientzia adierazpen jardueretan erabiltzea.
- Adierazpen jarduerak egiteko orduan, erritmo desberdinak konbinatzea eta objektu desberdinak erabiltzea, bai bakarka eta bai taldean.
- Adierazpen jardueretan aktiboki parte hartzea, adierazpenaren agerbide edo modalitate desberdinak erabiltzea eta desinhibizioaren aldeko jarrera izatea.
- Beroketarako jolas eta ariketa egokiak egitea.
- Beroketa baloratzea, jarduera fisikoaren hasierako ohitura osasungarri gisa.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

- Adierazpen dantzak taldeka egitean, aktiboki parte hartzen eta laguntzen du.
- Norberaren egoera motorrei irtenbidea ematea, proposatutako kirol jarduera fisikoen oinarri teknikoak aplikatuz.

3. EBALUAKETA

EDUKIAK

- Beroketa, eta horren esanahia jarduera fisikoa egitean.
- Bakarkako jarduera motorrak ingurune iraunkorretan.
- Bakarkako kirola gizarte eta kultur gertakari gisa.
- Jarduera motorrak lankidetzan egoeretan, aurkakotasuna izanik edo izan gabe.
- Jokoaren faseak taldeko kiroletan: kontzeptua eta helburuak.
- Joko, jolas eta joko-jolas alternatiboak.

- Orientazioa.
- Atletismoa.

HELBURUAK

- Beroketarako jolas eta ariketa egokiak egitea.
- Beroketa baloratzea, jarduera fisikoaren hasierako ohitura osasungarri gisa.
- Kirol ekintzekin zerikusia duten abilezia motorrak erabiltzea.
- Bakarkako kirol bateko oinarriko keinu teknikoak egitea eta arauko elementuak identifikatzea.
- Taldeko kirolen alderdi komunak nagusi diren jarduerak eta jolasak egitea.
- Besteen eta norberaren gauzatze maila onartzea eta hobetzeko prest egotea.
- Egiten diren jarduera, jolas eta kirolean aktiboki parte hartzea eta arauak errespetatu eta onartzea.
- Jarduera fisikoa eta kirola gozamen eta aberastasun pertsonalaren iturri gisa bizitzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

- Norberaren egoera motorrei irtenbidea ematea, proposatutako kirol jarduera fisikoen oinarri teknikoak aplikatuz.
- Hainbat egoera motorri irtenbidea ematea (aurkakotasunekoak, lankidetzakoak edo lankidetzaurkakotasunekoak) estimulu nagusien arabera estrategia egokiak erabiliz.
- Kirol jarduera fisikoek aisialdi aktiboa edukitzeko eta ingurunea egoki erabiltzeko eskaintzen dituzten aukerak ezagutzea.

3. DBH MAILA (3.G GELA)

2. EBALUAKETA

EDUKIAK

- Jokoaren faseak taldekako kirolean: erasoaren eta defentsaren antolaketa.
- Kirolaren oinarri tekniko, taktiko nahiz araukoak.
- Taldekako jardueretan, norberak daukan erantzukizuna bere gain hartzea.
- Gatazkak modu baketsuan konpontzea, emaitza itsu-itsuan begiratu gabe.
- Gorputz osoaren eta gorputz atalen mugimenduak egitea oinarri erritmiko batekin, espazio denbora eta intentsitatea konbinatuz, mugimenduaren adierazkortasuna nabarmenduz.

- Edozein ikaskiderekin dantza egiteko prest agertzea.
- Koreografia bat prestatzea, talde lanean jardunez, musika oinarriarekin, pausuak koordinatuz.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

- Kirol jarduera fisikoetan eta arte adierazpen jardueretan parte hartu bitartean sortzen diren zailtasunak eta arriskuak kontrolatzea, haren ezaugarriak eta dakartzaten interakzio motorrak analizatuz eta egin bitartean prebentzio eta segurtasun neurriak hartuz.
- Ekintza motorretan parte hartzen duten faktoreak eta jarduera fisikoaren intentsitatea kontrolatzen jakitea.
- Hainbat egoera motorrei irtenbidea ematea, estimuluen araberako erantzun egokiak aukeratuz.
- Kirol jarduera fisikoetan eta arte adierazpen jardueretan parte hartu bitartean sortzen diren zailtasunak eta arriskuak kontrolatzea, haren ezaugarriak eta dakartzaten interakzio motorrak analizatuz eta egin bitartean prebentzio eta segurtasun neurriak hartuz.
- Ikaskuntza prozesuan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazio esanguratsua bilatu, analizatu eta hautatzeko asmoz, norberaren materialak sortzea eta horien aurkezpenak egitea.

5.6 SAIOETAN LANDUTAKO ARIKETAK ETA JOKO-JOLASAK

Jarraian, saioetan landu diren ariketa eta joko-jolasak modu sinplean azalduko dira. Datu hauen bilketa egiteko, aste bakoitzean landu diren ekintzak bertan behatu dira hamabi astez. Honen ostean, datuen interpretazio bat egin da.

1. ASTEA

Abenduak 17, osteguna (1ºG gela)

- Badminton partiduak 1 VS 1 → 10 tantotara
- Dantza → Irakasleak irakatsi pausoak, besteak kopiatu
- Badminton partiduak 2 VS 2 → 10 tantotara

Abenduak 17, osteguna (3ºG gela)

- Dantza → Irakasleak irakatsi pausoak, besteak kopiatu
- Abiadura lantzeko errelebo lasterketak (hankamotzean, bi hankak batera, lasterketa normala, lau hanketan, badminton bolantea buruan eramanda)

- Badminton → Paseak binaka sarearen alde batetik bestera
- Badminton partiduak 2 VS 2 → kolpatzeko txandak errespetatuz eta derrigorrezko desplazamenduak eginez hiru modu desberdinetan (alboetara, atzera, makurtu)
- Dantza → Taldeka 2 x 8 pausoko koreografia bat pentsatu eta dantzatu

2. ASTEA

Urtarrilak 14, osteguna (1ºG gela)

- “Komekokos” jolasa
- Zirkuluari bueltak eta zelai barruan sartu jolasa
- Malabareak → Ariketa desberdinak
- Dantza → “Polka” egin

Urtarrilak 14, osteguna (3ºG gela)

- Erreflexu – bizkortasun ariketak → Bi kono lurrean jarri eta erreazio abiadura hartzeko. Hiru txanda irabaztera iritsi
- Badminton → Paseak binaka sarearen alde batetik bestera
- Badminton → Bi talde, zelaian ahalik eta bolante gutxirekin amaitu, horretarako beste zelaira jauarti behar dira. Irakasleak esango du noiz amaitzen den jolasa
- Badminton → Hiruko taldeak egin, beste taldearen kontra jokatu, kolpatu eta gero atzeraka joan behar da. (ez da partidua izan, ariketa sinple bat bezala antolatu da)
- Dantza → “Coyote Dax” egin
- Dantza → Taldeka koreografia prestatzen hasi

3. ASTEA

Urtarrilak 21, osteguna (1ºG gela)

- “Baloi eseria” jolasa
- “Zelai errea” jolasa
- Malabareak → Ariketa desberdinak
- Dantza → “Suentzako dantza” eta “Polka” egin

Urtarrilak 21, osteguna (3ºG gela)

- Indar ariketak → 4 ezberdin / 20 segundo egin – 10 atseden

- Badminton → Paseak binaka sarearen alde batetik bestera
- Badminton → Ariketa ezberdinak kolpe ezberdinak lantzeko (beheko kolpea, goiko kolpea, dejada eta errematea)
- Dantza → Taldeka koreografia prestatzen jarraitu
- “Harri, orri, ar” jolasa

4. ASTEA

Urtarrilak 28. Osteguna (1ºG gela)

- “Baloï eseria” jolasa
- “Zelai errea” jolasa
- Malabareak → Ariketa desberdinak (3 talde maila ezberdinekoak)
- Dantza → “Suentzako dantza” eta “Polka” egin

Urtarrilak 28, osteguna (3ºG gela)

- Indar ariketak → 4 ezberdin / 20 segundo egin – 10 atsedean
- “Ate-jokoa” egin
- Bata bestearen aurrean jarri – erreakzio abiadura hitz bat esaterakoan
- Badminton → Paseak binaka sarearen alde batetik bestera
- Badminton → 2 VS 2-ko partiduak
- Dantza → Taldeka koreografia prestatzen jarraitu

5. ASTEA

Otsailak 4, osteguna (1ºG gela)

- “Hamar pase” jolasa
- “Konoak bota” jolasa
- Malabareak → Praktikatzen jarraitu
- Dantza → “Momo-txorroen dantza” egin

Otsailak 4, osteguna (3ºG gela)

- Indar ariketak → 4 ezberdin / 20 segundo egin – 10 atsedean
- Bikoteka teniseko pilotarekin pase ezberdinak egin
- “Zapitxo jolasa” egin

- Badminton → 2 VS 2-ko partiduak
- Dantza → Taldeka koreografia prestatzen jarraitu

6. ASTEA

Otsailak 11, osteguna (1ºG gela)

- “Konoak bota” jolasa
- Malabareak → Praktikatzen jarraitu (azterketa praktikoa egiten hasi)
- Dantza → “Polka” eta “Suentzako dantza” egin

Otsailak 11, osteguna (3ºG gela)

- Badmintoneko azterketa teorikoa klasean
- Indar ariketak → 4 ezberdin / 20 segundo egin – 10 atsedean
- Voleyball-eko partiduak
- Dantza → Taldeka koreografia prestatzen jarraitu

7. ASTEA

Otsailak 18, osteguna (1ºG gela)

- “Zelai errea” jolasa
- Dantza → “Polka”, “Momo-txorroen dantza” eta “Suentzako dantza”. Bakoitza bi aldiz
- Malabareak → Praktikatzen jarraitu (azterketa praktikoa egiten jarraitu)

Otsailak 18, osteguna (3ºG gela)

- Badmintoneko azterketa praktikoa (2 VS 2-ko partiduak errubrika betetzeko)
- Dantza → Taldeka koreografia prestatzen jarraitu

8. ASTEA

Otsailak 25, osteguna (1ºG gela)

- Malabareak → Praktikatzen jarraitu (azterketa praktikoa egiten jarraitu)
- Dantza → Azterketa praktikoa
- Jolas librea → Futbol partidua eta soka saltoa (taldeka)

Otsailak 25, osteguna (3ºG gela)

- Indar ariketak → 4 ezberdin / 20 segundo egin – 10 atsedean

- Bikoteka ariketa ezberdinak
- Taldeka desplazamendu ezberdinak
- “Zelai errea” jolasa

9. ASTEA

Martxoak 4, osteguna (1ºG gela)

- Dantzetako azterketa praktikoa
- Malabareak → Praktikatzen jarraitu (azterketa praktikoa egiten jarraitu)

Martxoak 4, osteguna (3ºG gela)

- Dantza → Hasieran koreografia praktikatu eta ondoren azterketa praktikoa egin

10. ASTEA

Martxoak 11, osteguna (1ºG gela)

- “Katea jokoa”
- “Artzikirol-a” jolasa
- “Beisbol pie” jolasa

Martxoak 11, osteguna (3ºG gela)

Gaurko egunean, ez dute klaserik izan. Antzerki bat ikustera joan dira.

11. ASTEA

Martxoak 18, osteguna (1ºG gela)

- “Stop” jolasa
- “Azeriak, oiloak eta sugeak”
- “Hesiak – errelebo lasterketa”

Martxoak 18, osteguna (3ºG gela)


- Indar ariketak → 4 ezberdin / 20 segundo egin – 10 atsedan
- Bikoteka ariketa ezberdinak
- Voleyball → Kolpe ezberdinak landu
- Voleyball partidua

12. ASTEA

Martxoak 25, osteguna (1ºG gela)


- “Harrapaketa” jolasa
- “Kate jokoak”
- “Hesiak – errelebo lasterketa”

4. eta 5. Irudietan bildu dira klase bakoitzean (1. G eta 3. G) landutako ariketa eta joko-jolasak, eta bakoitzaren errepikapen kopurua.



4. Irudia. 1.G klasean landutako ariketak eta bakoitzaren errepikapen kopurua.

Aurreko irudian ikus daitekeen moduan, 1.G klasean malabareak eta dantzak nagusitzen dira batez ere, bigarren hiru hilekoan eduki hauek landu behar izan dituzte eta. Hala ere, beste hainbat joko-jolas ere landu dira. Behin edo bitan soilik egin dira, izan ere, gehien bat, beroketa moduan erabili direlako.



5. Irudia 3.G klasean landutako ariketak eta bakoitzaren errepikapen kopurua

Aurreko irudian ikus daitekeenez, 3.G klasean badminton ariketak eta partiduak, koreografiaren prestaketa eta indar ariketak nagusitzen dira. Badminton eta koreografiaren nagusitasunaren arrazoiak, bigarren hiruhilekoan eduki bezala landu beharra izan da. Indar ariketen kasuan, irakasleak saio gehienetan beroketaren zati bezala egin ditu.

5.7 NAFARROAN GORPUTZ HEZKUNTZAN LANDU BEHARREKO DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO CURRIKULUMA

Apirilaren 22ko 24/2015 FORU DEKRETUAK dioen bezala, hauek dira Nafarroan DBH 1. eta 3. mailtan gorputz hezkuntza landu beharreko bigarren hezkuntzako curriculumak:

DBH 1. MAILA

1. MULTZOA – JARDUERA MOTORRAK

EDUKIAK

Bakarkako jarduerak ingurune iraunkorretan

- Kirol ekintzekin zerikusia duten abilezia motorrak erabiltzea.
- Bakarkako kirola gizarte eta kultur gertakari gisa.
- Bakarkako kirol bateko oinarriko keinu teknikoak egitea eta arazko elementuak identifikatzea.

Jarduera motorrak aurkakotasuneko egoeretan

- Oinarrizko keinu teknikoak eta desplazamenduak.
- Teknika, helburuak eta inplikaturik dauden gaitasun motorrak.
- Printzipio estrategikoak eta oinarrizko jarrera.
- Joko arauak.

Jarduera motorrak lankidetza egoeretan, aurkakotasuna izanik edo izan gabe

- Jokoaren faseak taldeko kirolean: kontzeptua eta helburuak.
- Taldeko kirolen alderdi komunak nagusi diren jarduerak eta jolasak egitea.
- Besteen eta norberaren gauzatze maila onartzea eta hobetzeko prest egotea.
- Egiten diren jarduera, jolas eta kirolean aktiboki parte hartzea eta arauak errespetatu eta onartzea.
- Jarduera fisikoa eta kirola gozamen eta aberastasun pertsonalaren iturri gisa bizitzea.

Ingurunera egokitzeko egoeretako ekintza motorrak

- Kirola eta jarduera fisikoa ingurune ez-iraunkorretan.
- Hurbileko natur inguruneak kirola eta jarduera fisikoa egiteko eskaintzen dituen aukerak.
- Jarduerak egiteko oinarrizko ekipamendua, jardueraren iraupenaren eta baldintzen arabera.
- Meteorologia, jarduera bat prestatzeko edo egiteko kontuan hartu beharreko faktore gisa.
- Hiri eta natur ingurunea zaintzeko arauak eta segurtasunekoak onartu eta betetzea.

Ekintza motorrak arte edo adierazpen egoeretan

- Gorputzaren adierazgarritasuna: jarrera, keinua eta mugimendua. Gorputzaren kontzientzia adierazpen jardueretan erabiltzea.
- Adierazpen jarduerak egiteko orduan, erritmo desberdinak konbinatzea eta objektu desberdinak erabiltzea, bai bakarka bai taldean.
- Adierazpen jardueretan aktiboki parte hartzea, adierazpenaren agerbide edo modalitate desberdinak erabiltzea eta desinhibizioaren aldeko jarrera izatea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Norberaren egoera motorrei irtenbidea ematea, proposatutako kirol jarduera fisikoen oinarri teknikoak aplikatuz.

2. Hainbat egoera motorri irtenbidea ematea (aurkakotasunekoak, lankidetzakoak edo lankidetzaurkakotasunekoak) estimulu nagusien araberako estrategia egokiak erabiliz.
3. Kirol jarduera fisikoek aisialdi aktiboa edukitzeko eta ingurunea egoki erabiltzeko eskaintzen dituzten aukerak ezagutzea.
4. Mezuak bakarka edo taldeka adieraztea eta komunikatzea gorputz adierazpenaren teknikak erabiliz.

IKASKUNTZAKO ESTANDAR EBALUAGARRIAK

- 1.1. Proposatutako jardueren eredu teknikoaren oinarriko alderdiak gauzatzen ditu.
 - 1.2. Bere gauzatze maila ebaluatzen du, proposaturiko eredu teknikoarekin alderatuz.
 - 1.3. Eredu teknikoan inplikaturako mugimenduak egiteko modua deskribatzen du.
 - 1.4. Hautaturiko jardueraren oinarriko teknikak azaldu eta aplikatzen ditu, eta ingurunearekin errespetuzko jarrera eta ohiturak erakusten ditu.
-
- 2.1. Oinarri tekniko eta taktikoak egokitzen ditu proposatzen zaizkion aurkakotasuneko eta taldekako kirol jarduera fisikoetan abantaila lortzeko.
 - 2.2. Hautatu duen taldekako kirolean, eraso eta defentsa antolatzeak aukerak azaldu eta bere kasa aplikatzen ditu.
 - 2.3. Lankidetzako, aurkakotasuneko edo lankidetzaurkakotasuneko egoeretan erabakiak hartu behar direnean kontuan hartu beharreko estimuluak diskriminatzen ditu, abantaila lortzeko edo ekintzaren helburua betetzeko.
 - 2.4. Ebatzitako egoerei buruzko gogoeta egiten du, hartutako konponbideen egokitasuna eta antzeko egoeretan duten aplikagarritasuna baloratuz.
-
- 3.1. Inguruneak kirol jarduera fisikoak egiteko eskaintzen dizkion aukerak ezagutzen ditu.
 - 3.2. Ingurunea errespetatzen eta baloratzen du, kirol jarduera fisikoak egiteko denontzako tokia den aldetik.
 - 3.3. Gaur egungo testuinguru sozialean, gorputzaren tratamenduarekin, aisialdiko jardurekin, jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutako bizimodua eta jarrerak analizatzen ditu ikuspuntu kritiko batetik.

4.1 Keinuak eta mimika erabiliz, mezu bat prestatu eta jakinarazten du talde baten barrenean.

4.2 Adierazpen dantzak taldeka egitean, aktiboki parte hartzen eta laguntzen du.

2. MULTZOA – OSASUNA

EDUKIAK

- Beroketa eta horren esanahia jarduera fisikoa egitean.
- Beroketarako jolas eta ariketa egokiak egitea.
- Beroketa baloratzea, jarduera fisikoaren hasierako ohitura osasungarri gisa.
- Jarduera fisikoa amaitzean intentsitate txikiko ariketak egitea.
- Egoera fisikoa. Osasunarekin lotura duten kualitateak.
- Egoera fisikoa hobetzea gaitasun fisikoak garatuz, batez ere osasunarekin zerikusia dutenak.
- Maila osasungarriak egoera fisikoaren faktoreetan.
- Jarrera-higienea jarduera fisikoan eta eguneroko jardueretan.
- Hidratazioa eta elikadura jarduera fisikoa egin bitartean.
- Euskarrizko muskuluak indartzea, indarra garatzeko sistemak eginez.
- Jarduera fisikoak egitean eta eguneroko bizitzako egoeretan gorputz jarrera egokiak lantzea.

EBALUAZIO IRIZIPIDEAK

1. Gaitasun fisikoak norberaren ahalmenaren arabera eta osasunaren mugen barrenean garatzea.

IKASKUNTZAKO ESTANDAR EBALUAGARRIAK

- 1.1. Oinarrizko gaitasun fisikoak hobetzen aktiboki parte hartzen du, ikuspegi osasuntsu batetik, haiek garatzeko oinarrizko metodoak erabiliz.
- 1.2. Ikasleak unean-unean daukan garapen motorren eta bere gaitasunen lesioei aurrea hartzeko neurri gisa.
- 1.3. Jarduera fisikoak egitean jarrera-higienearen oinarriak aplikatzen ditu, araberako egoera fisikoa lortzen du.

DBH 3. MAILA

1. MULTZOA – JARDUERA MOTORRAK

EDUKIAK

Bakarkako jarduera motorrak ingurune iraunkorretan

- Bakarkako jolas eta kirolak egitea, aisialdikoak eta jostetarakoak, aurreko ikasturtean egindakoak ez bezalakoak.
- Egindako bakarkako kirolen oinarri tekniko eta taktikoak eta arauak ezagutzea eta praktikatzea.

Jarduera motorrak aurkakotasuneko egoeretan

- Aurreko ikasturtean egin ez den aurkakotasuneko kirol batean, inplementuak behar dituen batean, oinarri tekniko, taktiko eta erregelamenduzkoak praktikatzea.
- Joko arauak. Jarrerak moldatzea eta lehiaketaren emaitzak onartzea.
- Jolas eta kirolak aisiako eta astialdiko jarduera fisiko gisa baloratzea eta kirol profesionalarekin dituzten diferentziak nabarmentzea.

Jarduera motorrak lankidetzaren egoeretan, aurkakotasuna izanik edo izan gabe

- Jokoaren faseak taldekako kirolean: erasoaren eta defentsaren antolaketa.
- Aurreko ikasturtean egin den taldeko kirolean ez, beste batean, oinarri tekniko, taktiko eta erregelamenduzkoak praktikatzea.
- Taldeko jardueran norberak daukan erantzukizuna bere gain hartzea, guztien helburua lortzeko ezinbesteko baldintza gisa.
- Gatazkak modu baketsuan konpontzea, emaitzari itsu-itsuan begiratu gabe, kirol-legez jardutea eta jarduera fisikoetan maila desberdinak daudela onartzea, bai ikusle gisa bai parte-hartzaile gisa.

Ingurunera egokitzearen egoeretako ekintza motorrak

- Natur eta hiri inguruneetan orientazio ibilaldiak edo bestelako jarduerak egiteko segurtasun arauak.
- Orientazio ibilaldiak egitea, natur ingurunean orientatzeko oinarriko elementuak eta mapak erabiliz.
- Naturan jarduerak egiteko kontuan hartu beharreko segurtasun eta babes arauak onartzea.

Ekintza motorrak arte edo adierazpen egoeretan

- Dantzak: gorputz adierazpenari lotutako alderdi kulturalak.
- Gorputz osoaren eta gorputz atalen mugimenduak egitea oinarri erritmiko batekin, espazioa, denbora eta intentsitatea konbinatuz, mugimenduen adierazkortasuna nabarmenduz.
- Dantza egitea bakarka, bikoteka edo taldean.
- Edozein ikaskiderek dantza egiteko prest agertzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Kirol jarduera fisikoetan eta arte eta adierazpen jardueretan parte hartu bitartean sortzen diren zailtasunak eta arriskuak kontrolatzea, haien ezaugarriak eta dakartzaten interakzio motorrak analizatuz eta egin bitartean prebentzio eta segurtasun neurriak hartuz.
2. Ikaskuntza prozesuan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazio esanguratsua bilatu, analizatu eta hautatzeko asmoz, norberaren dokumentuak sortzea eta horien aurkezpen eta azalpenak egitea.

IKASKUNTZAKO ESTANDAR EBALUAGARRIAK

- 1.1. Proposatutako kirol jarduera fisikoetan eta arte eta adierazpen jardueretan berarentzat edo besteentzat arriskugarriak izan daitezkeen ezaugarriak identifikatzen ditu.
 - 1.2. Larrialdietako eta ingurunea babesteko zerbitzuak abian jartzeko protokoloak deskribatzen ditu.
 - 1.3. Ziklo honetan garatzen dituen jardueri dagozkien segurtasun eta prebentzio neurriak hartzen ditu, arreta berezia jarritz ingurune ez-iraunkor batean egiten diren jardueri.
-
- 2.1. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen ditu norberaren dokumentu digitalak prestatzeko (testua, aurkezpena, irudia, bideoa, soinua ...), informazio esanguratsua bilatu, analizatu eta hautatzeko prozesuaren emaitza gisa.
 - 2.2. Gure testuinguru sozialean, jarduera fisikoarekin edo gorpuztasunarekin zerikusia duten egungo gaiet buruz prestatutako lanak azaldu eta defendatzen ditu, baliabide teknologikoak erabiliz.

2. MULTZOA – OSASUNA

EDUKIAK

- Berotze ariketak prestatu eta egitea, egin beharreko jarduera fisikoa aurretik aztertuta.
- Osasunarekin zerikusia duten gaitasun fisikoen hobekuntza eta giza gorputzeko aparatuen eta sistemen egokitzapena erlazionatzea.
- Osasunarekin lotutako gaitasunak hobetzea (erresistentzia aerobikoa, malgutasuna eta indar-erresistentzia orokorra), entrenatzeko sistema eta metodoak erabiliz.
- Elikadura eta jarduera fisikoa: jatearen eta kaloria-gastuaren arteko oreka.
- Elikadura baloratzea osasunerako faktore erabakigarri gisa.
- Erlaxazio eta arnasketa metodoak erabiltzea tentsioak askatzeko baliabide gisa.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Ekintza motorrean parte hartzen duten faktoreak eta jarduera fisikoaren intentsitatea kontrolatzeko tresnak ezagutzea, norberaren praktikara aplikatuta eta osasunarekin erlazionatuta.

IKASKUNTZAKO ESTANDAR EBALUAGARRIAK

- 1.1. Ziklo honetan lantzen diren kirol jarduera fisikoetan eta arte eta adierazpen jardueretan gaitasun fisikoen eta koordinazio gaitasunen inplikazioa analizatzen du.
- 1.2. Energia lortzeko sistema metabolikoak jarduera fisiko mota bakoitzarekin, elikadurarekin eta osasunarekin lotzen ditu.
- 1.3. Egokitzen organikoak jarduera fisiko sistematiakoarekin erlazionatzen ditu, baita osasunarekin eta kirola egiteak dakartzen arrisku eta kontraindikazioekin ere.
- 1.4. Ahaleginaren intentsitatea egokitzen du bihotz taupaden maiztasuna kontrolatuz egoera fisikoaren faktoreak hobetzeko tarteetan araberak.
- 1.5. Egoera fisikoaren faktoreak bere kasa ebaluatzeko prozedurak aplikatzen ditu.
- 1.6. Jarduera fisikoak osasungarritzat hartuak izateko behar dituzten ezaugarriak identifikatzen ditu, eta osasunarentzat eragin negatiboa izan dezaketen praktiken aurrean iritzi kritikoa dauka.

5.8 IKASTETXEAREN HELBURU OROKORRAK

Lizarralde BHI ikastetxeari dagokionez, helburu orokor batzuk bilatzen ditu ikasle guztien garapen integrala bermatzeko. Ikasleei teoria eta eduki ezberdinak erakustez gain, ikasleak pertsona gisa haztea bilatzen da.

Helburu hauek, bederatzi puntutan laburbiltzen dira (IES TIERRA ESTELLA – LIZARRALDEA BHI, 2021):

- Ikasle guztiei kalitatezko irakaskuntza publiko bat bermatzea, unibertsitatera eta formakuntza profesionalek sartzeko prestakuntza egoki bat izateko (barne logikaren azterketa egin eta gero, ez da guztiz kalitatezko irakaskuntza bat eman, izan ere, ziurgabetasun ariketak eta jokojolasak ez dira praktikatu, gehiago landu beharko litzateke. Baina kasu honetan kontutan izan behar da lehenengo ebaluazioan unitate didaktiko bezala orientazioa eta xenda-zaletasuna landu dutela. Beraz posiblea da unitate didaktiko hori lantzerakoan ziurgabetasun ekintzak egin izatea).

- Pertsona osoak landu konpetentzia guztiak garatuz (aurreko helburuarekin jarraituz, barne logikaren azterketa egin eta gero, konpetentzia guztien garapena ez da eman ariketa eta joko-jolas guztiak espazio ziur batean eman direlako).
- Beste arlotako pertsona eta erakundeekin kolaboratu heziketa praktikoa aberasteko (helburu hau ez da landu behaketa egin den denbora osoan baina beharbada beste mailetan egiten da edo beste hiruhileko batean irteeraren bat egitea pentsatua dago).
- Komunitatearekin lotura mantendu eta hurbileko ingurunea ezagutu (aurreko helburuarekin lotua, ez da helburu hau landu behintzat aztertu egin diren klaseetan. Helburu hau sakontasun gehiago beharko luke komunitatearekin lotura mantentzea zer den ondo jakiteko. Hurbileko ingurunea ezagutzeari dagokionez, posiblea da lehenengo ebaluazioan landu izana orientazioa eta xenda-zaletasuna lantzerakoan).
- Instalazio egokiak eta berriak/modernoak bermatu (helburu hau ezin da baloratu behaketan lortutako emaitzak aztertu eta gero, azken finean ez dauka ikasleekin erlaziorik. Baina esan beharra dago instalazioak egokiak eta nahiko berriak direla, ikasleen praktika modu egokian bermatzeko).
- Ikasleen ekintza eta praktika aktiboa bultzatzen dituen metodologiak bilatu (ariketak eta joko-jolasak lantzerakoan, uneoro praktika aktiboa egin da jakintza praktikoa bultzatuz).
- Errespetuz lan egin eta bizikidetza egokia sustatu (bizikidetza landu egin da, izan ere, kolaborazio ariketa eta joko-jolasak nagusitu egin dira diferentzia nabarmena izanda. Bestalde, errespetuz lan egin da araudia bete delako eta hortaz, arauak betetzerakoan, beste ikasleak errespetuz tratatzen dira).
- Beste hizkuntzen ikaskuntza sustatu euskara eta gaztelaniaren indartzetik (bi hizkuntzetan ematen dira klaseak, euskaraz eta gaztelaniaz).
- Irakasleen heziketa bultzatu hiru lan multzoetan: teknologia berriak, elkarbizitza eta metodo berrien ikaskuntza (kasu honetan ezin da jakin irakasleek formakuntza hau egin duten edo ez. Baina elkarbizitza landu egin da ariketen eta joko-jolasetan arauak errespetatu direlako eta kolaborazio ariketak nagusitu direlako oposiziozkoekin konparatuz).

Helburu batzuk barne logikarekin doaz eta beste batzuk kanpo logikarekin. Aipatu beharra dago barne logikako helburuak aztertzerakoan emaitzetan lortu diren grafikoekin konparatu daitezkeela, datu horiek objektiboak izanda. Kanpo logikoaren helburuetan aldiz, nire parte hartzearen eta klaseen behaketa egin eta gero konparatu dira. Ikastetxean izandako bizipenaren ondorioz eta ez azterketa bat egin eta gero lortutako emaitzekin.

5.9 LIZARRALDEA IKASTETXEKO GORPUTZ HEZKUNTZAKO BARNE LOGIKAREN JARDUEREN ANALISIA

Atal honetan Lizarraldea BHI Ikastetxean Abenduaren 17tik Martxoaren 25a arte Heziketa Fisikoko irakasgaien erregistratutako datuak aztertuko dira. Datu horiek, aurretik esan den moduan, DBH 1.G eta 3.G klaseak aztertuta lortu dira eta saioetan zehar egindako ariketen barne logika analizatuko da.

Aurretik aipatu den bezala, DBH 1.G klasean 20 ikasle daude (8 neska eta 12 mutil), baina aipatu beharra dago neska bat ez duela saioetan parte hartu belaunean lesio bat izateagatik, hortaz, osotara 19 ikasle dira. Esan bezala, 12 saio aztertu dira, gehienak bigarren hiruhilekoak izanda.

DBH 3.G klasea, aldiz, 23 ikaslek osatzen dute (9 mutil eta 14 neska). Kasu honetan ez dago lesiorik duen ikaslerik. Osotara 10 saio aztertu dira, gehienak bigarren hiruhilekoak izanda.

Aurretik esan den bezala, ariketak eta joko-jolasak aipatutako sailkapenaren arabera (harremana, espazioa, denbora eta tresnen erabilera) aztertu dira.


Aipatzekoa da, grafikoetan agertzen diren datuak saioetan zehar landu diren jarduera kopuruetan islatuta daudela eta ez denbora (minutuetan) kontutan izanda.

Bi klaseak aztertu eta gero, eskolan ematen den hezkuntza ,orokorrean, sozio-motorra (kolaborazio eta kolaborazio – oposizio joko-jolasak nagusituz), zitura, memoria gabea eta tresnaduna dela esan daiteke.

HARREMAN SOZIALEN ANALISIA IKASTETXEAN

Ikastetxeko harreman sozialen analisia egiteko kontutan izandako aldagaiak bi izan dira: harreman psikomotorrak eta sozio-motorrak.

Harreman psikomotorrei dagokienez, modu indibidual batean lehiatzeari deritza, hortaz, adimen sozialaren garapenari ez zaio garrantzirik ematen. Soilik norberaren trebezia eta esperientzia bilatzen da. Harreman sozio-motorretan aldiz, adimen sozialaren garapenari garrantzia ematen zaio. 6. irudian ikus daiteke ikastetxean landutako ariketen sailkapena, orain aipatu diren harreman sozialen arabera.




6. Irudia. Ikastetxean landutako ariketen sailkapena harreman sozialen arabera.

Aurreko irudia ikusita, ariketen %80-a, hau da, 67 ariketa, sozio-motorrak izan direla ikus daiteke. Beraz, soilik %20-a, hau da, 17 ariketa, psikomotorrak izan dira. Oso nabaria da ariketa kopuruaren arteko ezberdintasuna.

Harreman sozio-motorrak sakonago aztertuz, hiru era ezberdinetan garatu daitezke: kolaborazio egoeretan, oposizio egoeretan eta kolaborazio-oposizio egoeretan.

Kolaborazio joko-jolasetan ez dago areririk, hau da, joko-jolas hauetan soilik taldekideak daude. Oposiziozko joko-jolasetan, arerio bat dago, baina ez dago taldekiderik, beraz, pertsona bat beste baten aurka dagoenean ematen da hau. Azkenik, kolaborazio-oposiziozko joko-jolasetan, aurreko bi kasuen konbinazioa ematen da. Hau da, kasu honetan taldekideak daude, eta arerioa dago. 7. Irudian ikastetxean landutako ariketa sozio-motorrak sailkatuta ageri dira aipatutako eraren arabera.



7. Irudia. Ikastetxean landutako ariketa sozio-motorren sailkapena.

Aurreko irudian ikusi daitekeen, kolaborazio-oposizio jarduerak nagusitzen dira %48-ko portzentajerekin, hau da, 32 jarduera osotara. Ondoren, oso parekaturik, %43-ko portzentajearekin, kolaborazio jarduerak aurkitu daitezke, hau da, 29 jarduera osotara. Azkenik, soilik %9-arekin oposizio jarduerak daude, hau da, 6 jarduera osotara.

Hortaz, 6. eta 7. Irudiak aztertu eta gero, ikastetxeak ikasleen adimen soziala garatzea bilatzen duela agerian dago. Taldeari garrantzi gehiago ematen zaio banakoari baino. Modu honetan, balio sozialak, elkarbizitza eta elkarrekiko kontaktua irakatsi eta sustatu nahi ditu.

ESPAZIOAREN ANALISIA IKASTETXEAN

Ikastetxeko espazioaren analisia egiteko kontutan izandako aldagaiak bi izan dira: Espazio ziurra eta espazio ziurgabea.

Espazio zitureko jarduerak landuz gero, erabiltzen den eremuaren dimentsioak eta tamaina ezagunak dira. Ikasleek espazioa ezagutzen dute eta ingurua nolako den dakite, aldezturik eremu berdinean jolastu dutelako edo irakasleek espazioaren azalpena eman dutelako. Modu honetan, espazio ziture batean lantzen diren jarduerak ez dute adimen espaziala lantzen.

Espazio ziurgabeko jardueretan aldiz, erabiltzen den eremuaren dimentsioak eta tamaina ez dira ezagunak. Ikasleek ez dute espazioa ezagutzen eta nolako den ingurua ez dakite. Ezin dezakete jakin haien aurrean zer aurkituko duten ezta zeintzuk izan daitezkeen agertuko diren ezusteak. Hortaz, espazio ziurgabe batean lantzen diren jarduerak adimen espaziala lantzen dute.

Datuei erreparaturik, %100-a, hau da, 84 jarduera, espazio ziture batean egin dira. Ez dira espazio ziurgabeko jarduerarik egin.

Saio guztiak ikastetxeko polikiroldegi barruan egin dira, zelai eta eremu desberdinak erabilita, baina beti ikasleek ezagutzen duten eremuan. Ikastetxe gehienetan ohikoena hau gertatzea da.


Honi erreparaturik, ikasleen adimen espaziala lantzea ez dela bilatzen nahiko argi dago. Izan ere, jarduera guztiak espazio ziturekoak izan dira eta ikasleek eremuaren dimentsioak eta nondik norakoak ezagunak izan dituzte.

DENBORAREN ANALISIA IKASTETXEAN

Ikastetxeko denboraren analisia egiteko kontutan izandako aldagaiak bi izan dira: memoriaduna eta memoria gabea.

Jarduera memoriadunak landuz gero, garaile dun bat (pertsona bat edo talde bat) bilatzen da. Jarduera batean talde bat baino gehiago egonez gero, jarduera amaitzean garaile bat egongo da. Normalean puntuaketa (gola sartzea, puntuak lortzea...) edo denbora (talde batek lehena izatea) bidez egiten dira jarduerak hauek. Kasu hauetan lehia bilatzen da eta helburua irabazle bat egotea da.

Memoria gabeko jarduerak landuz gero, aldiz, garaile gabeko pertsona edo taldea bilatzen da. Kasu hauetan ez da lehia bilatzen eta oinarritzko helburua ondo pasatzea da. 8. Irudian sailkapen honen bidez ageri dira landutako ariketak.



8. Irudia. Ikastetxean landutako ariketen sailkapena denboraren arabera.

Grafikoan ikusten den bezala, erdia baino gehiago, ariketen %55-a (46 ariketa), memoria gabeko jarduerak izan dira. Beraz gainerakoa, ariketen %45-a (38 ariketa), memoriadun jarduerak izan dira.

Hortaz, 8. Irudia aztertu eta gero, nahiz eta memoriadun eta memoria gabeko ariketak nahiko orekaturik egon, ikastetxeak garaile gabeko jarduerak nagusitzen ditu. Hau da, ez da ikasleen lehiakortasuna bilatzen eta oinarritzko helburu bezala kirola egitean ondo pasatzea nagusitzen da.

TRESNEN ERABILERA IKASTETXEAN

Ikastetxeko tresnen erabileraren analisisa egiteko kontutan izandako aldagaiak bi izan dira: ariketa tresnaduna eta tresna gabea.

Tresnak erabiltzen diren jarduerak landuz gero, jardueran zehar ikasleek objektu ezberdinak erabiliko dituzte eta ahalmen hori bereganatuko dute. Honetaz gain, trebezia landuko da tamaina eta forma ezberdineko materialak erabiltzen direlako. Tresnak erabiltzen ez diren jarduerak landuz gero, jardueran zehar ikasleek ez dituzte objektu edo materialik erabiliko eta hortaz, ez da trebezia hori landuko. 9. Irudian tresnen erabileraren arabera sailkaturik ageri dira aztertutako ariketak.



9. Irudia. Ikastetxean landutako ariketen sailkapena tresnen erabileraren arabera.

Datuak ikusita, %60-a, hau da, 50 ariketa, objektua edo materiala erabili diren jarduerak izan dira. Bestalde, %40-a, hau da, 34 ariketa, objektua edo materiala erabili ez diren jarduerak izan dira.

Aipatutako guztiaren arabera, ikastetxeak materiala edo objektuak erabiltzen diren jarduerak nagusitzen ditu, honek ikasleengan transmititzen dituen trebeziak eta balioak bermatuz.

5.10 LIZARRALDEA IKASTETXEKO GORPUTZ HEZKUNTZAKO KLASE BAKOITZAREN BARNE LOGIKAREN ANALISIA


Atal honetan klase bakoitzaren barne logikaren analisia egin da. Modu honetan, gela arteko ezberdintasunak aztertuko dira ikastetxean adinaren arabera ezberdintasunak ematen diren edo ez ikusiz.

a) Lizarraldea ikastetxeko gorputz hezkuntzako DBH 1.G klasearen barne logikaren jardueren analisia

Jarraian azertu diren datuak 1.G gela egindako saioen jarduerak dira. Osotara 12 saioen informazioaren bilketa eta azterketa egin da. Analisia burutzeko aurreko ataletan jarraitutako prozedura eta aldagai berdinak erabili dira.

HARREMAN SOZIALEN ANALISIA 1.G KLASEAN

1.G gelako harreman sozialen (harreman psikomotorrak eta sozio-motorrak) sailkapena 10. Irudian behatu daiteke.




10. Irudia. 1.G klasean landutako ariketen sailkapena harreman sozialen arabera.

Datuei dagokionez, ariketen %79-a, hau da, 34 ariketa, sozio-motorrak izan dira, %21-a, hau da, 9 ariketa, soilik psikomotorrak izanik.

Bestalde, ikastetxearen analisiaren kasuan bezala, harreman sozio-motorren analisi sakonagoa egin da.

11. Irudian ageri da ariketen sailkapena honen arabera.



11. Irudia. 1.G klasean landutako ariketa sozio-motorren sailkapena.

Ariketa sozio-motorrak soilik kontutan hartuta, kolaborazio-oposizio jarduerak nagusitzen dira %56-ko portzentajearekin, hau da, 19 jarduera osotara. Kolaborazio jarduerak, aldiz, %35-ko portzentajearekin

aurkitu daitezke, hau da, 12 jarduera. Azkenik, soilik %9-arekin oposizio jarduerak daude, hau da, 3 jarduera osotara.

Hortaz, 11. irudia aztertu eta gero, 1.G klaseko irakasleak garrantzi gehiago eman dio ariketa sozio-motorrak egiteari, psikomotorrak egiteari baino. Baiezta daitezke talde lanaren eta kolektiboaren garapena nagusitzen dituela banakoarekin alderatuz (%91-a kolaborazioarekin erlazionatuta dago). Adimen soziala garatzea bilatzen du, beraz, balio sozialak, elkarbizitza eta elkarrekiko kontaktua sustatuz.


ESPAZIOAREN ANALISIA 1.G KLASEAN

1.G gelako espazioaren analisia egiteko, ikastetxearen espazioaren analisisian egin den prozedura berdina erabili da, beraz, espazio ziurra eta ziurgabea kontutan izan dira.

Argi dagoen moduan, %100-a, espazio ziur batean egin da. Izan ere saio guztiak ikastetxeko polikiroldegi barruan egin dira. Beraz, lehen aipatu den moduan, 1.G klaseko irakasleak ez du ikasleen adimen espaziala lantzea bilatzen.

DENBORAREN ANALISIA 1.G KLASEAN

1.G gelako denboraren analisia egiteko ariketak memoriadunak edo memoria gabek izan diren aztertu da. 12. Irudian ikus daitezke sailkapen hau.



12. Irudia. 1.G klasean landutako ariketen sailkapena denboraren arabera.

Grafikoa aztertu eta gero, bai memoriadun jarduerak bai memoria gabeko jarduerak oso parekatuak landu direla argi dago. %51-ko portzentajearekin, hau da, 22 ariketa, memoriadun ariketak egin dira. Bestalde, %49-ko portzentajearekin, hau da, 21 ariketa, memoria gabeko ariketak landu dira.

Hortaz, 1.G klaseko irakasleak egindako jardueren banaketa ikusita, bai memoriadun bai memoria gabeko ariketak ahalik eta parekoen lantzea izan da helburua. Horrela, lehiakortasuna eta lehia gabeko ariketak lantzeari garrantzi berdina eman zaio.

TRESNEN ERABILERA 1.G KLASEAN

1.G gelako tresnen erabileraren analisia egiteko kontutan izandako aldagaiak aurretik aipatutakoak dira, eta 13. Irudian ageri da sailkapena.



13. Irudia. 1.G klasean landutako ariketen sailkapena tresnen erabileraren arabera.

Datuak ikusita, %60-a, hau da, 26 ariketa, objektua edo materiala erabili diren jarduerak izan dira. Bestalde, %40-a, hau da, 17 ariketa, objektua edo materiala erabili ez diren jarduerak izan dira.


Aurretik aipatutako aztertu eta gero, 1.G klaseko irakasleak materiala edo objektuak erabiltzen diren jarduerak nagusitzen dituela esan daiteke, honek ikasleengan transmititzen dituen trebeziak eta balioak bultzatuz.

b) Lizarraldea ikastetxeko gorputz hezkuntzako DBH 3.G klasearen barne logikaren jardueren analisia

Jarraian aztertu diren datuak 3.G gelan egindako saioen jarduerak dira. Osotara 10 saioen informazioaren bilketa eta azterketa egin da. Kasu honetan ere, analisia egiteko prozedura berdina erabili da.

HARREMAN SOZIALEN ANALISIA 3.G KLASEAN


Aurreko kasuetan bezala, eta 14. Irudian ikus daitekeen moduan, harreman psikomotorrak eta sozio-motorrak aztertu dira.



14. Irudia. 3.G klasean landutako ariketen sailkapena harreman sozialen arabera.

Datuei dagokienez, ariketen %80-a, hau da, 33 ariketa, sozio-motorrak izan dira, %20 bakarrik ariketa psikomotorrak izanik.

Kasu honetan ere, ariketa sozio-motorrak kolaboraziozkoak, oposiziozkoak edo kolaborazio-oposiziozkoak diren aztertu da (15. Irudia).



15. Irudia. 3.G klasean landutako ariketa sozio-motorren sailkapena.

Ariketa sozio-motorrak aztertuz, kolaborazio jarduerak nagusitzen dira %52-ko portzentajearekin, hau da, 17 jarduera. Jarraian %39-ko portzentajearekin kolaborazio-oposizio jarduerak aurkitu daitezke, hau da, 13 jarduera osotara. Azkenik, soilik %9-arekin oposizio jarduerak daude, hau da, 3 jarduera.

Hortaz, 3.G klaseko irakasleak garrantzi gehiago eman dio ariketa sozio-motorrak egiteari, psikomotorrak egiteari baino. Baieztatu daiteke talde lanaren eta kolektiboaren garapena nagusitzen dituela banakoarekin alderatuz (%91-a kolaborazioarekin erlazionatuta dago). Adimen soziala garatzea bilatzen du, balio sozialak, elkarbizitza eta elkarrekiko kontaktua sustatuz.


ESPAZIOAREN ANALISIA 3.G KLASEAN

3.G gelako espazioaren analisisa egiteko aurreko kasuetan bezala espazio ziurra eta ziurgabea aztertu dira. Aurreko kasuetan bezala, argi dagoen moduan, ariketen 100%-a espazio ziurrean burutu dira.

Saio guztiak ikastetxeko polikiroldegi barruan egin direnez, ikasleentzat eremu ezaguna izanda, ez da adimen espaziala landu. Beraz 3.G klaseko irakasleak ez du ezta ere helburu hori bilatu.

DENBORAREN ANALISIA 3.G KLASEAN

16. Irudian ikus daitekeen moduan, kasu honetan ere, denboraren analisisa egiteko ariketak memoriadunak edo memoria-gabeak diren aztertu da.




16. Irudia. 3.G klasean landutako ariketen sailkapena denboraren arabera.

Grafikoa aztertu eta gero, erdia baino zerbait gehiago, %61-a, hau da, 25 ariketa, memoria gabeko jarduerak izan dira. Aldiz, %39-a, hau da, 16 ariketa, memoriadun jarduerak izan dira.

Beraz, 3.G klaseko irakasleak egindako jarduera ezberdinak ikusita, garaile gabeko jarduerak nagusitzen dituela nahiko argi dago. Honek zentzua dauka, izan ere, bigarren hiruhilekoan helburu bat dantza izanez, garailerik gabeko jarduerak ohikoak dira.

TRESNEN ERABILERA 3.G KLASEAN

3.G gelako tresnen erabileraren analisia 17. Irudian behatu daiteke.



17. Irudia. 3.G klasean landutako ariketen sailkapena tresnen erabileraren arabera.

Aurreko irudian ikus daitekeen moduan, ariketen %59-a, hau da, 24 ariketa, objektua edo materiala erabili diren jarduerak izan dira. Bestalde, %41-a, hau da, 17 ariketa, objektua edo materiala erabili ez diren jarduerak izan dira.

Hau aztertu eta gero, 3.G klaseko irakasleak egindako jardueren banaketa ikusita, materiala edo objektuak erabiltzen diren jarduerak nagusitzen ditu zertxobait tresna-gabeak diren jarduerekin alderatuz. Horrela, honek transmititzen dituen trebezia eta balioa bermatzen du.

6. LIZARRALDEA BHI IKASTETXEKO GORPUTZ HEZKUNTZAKO EDUKIEN ETA ESKOLAKO HELBURUEN ARTEKO LOTURA

Ikastetxeko barne logikaren azterketa egin eta gero, ikastetxean ematen diren ariketa eta joko-jolasak sozio-motorrak (batez ere kolaborazio-oposizio eta kolaborazio jarduerak), ziurrak, memoria gabeak (naiz eta nahiko parekaturik egon) eta tresnadunak dira.

Bi klaseak konparatuz, emaitzak nahiko berdinak izan dira kontutan hartuta maila bakoitzean eduki ezberdinak landu behar izan direla. Gainera, klase bakoitzean irakasle ezberdin bat egon da. Desberdintasun nabarmenenak denboraren analisia aztertzerakoan ematen da. DBH 3.G klasean memoria gabeko ariketei garrantzi gehiago eman zaie DBH 1.G klasearekin alderatuz. Hortaz, orokorrean bi klaseetan estruktura berdina jarraitu da eta beraz ez da adinarekiko ezberdintasuna ematen. Urteen arabera irakasten den pedagogia berdina da kurtso guztietan.

Orokorrean, ariketa eta joko-jolasetatik ateratako ondorioak ikusita, ikastetxeko helburuekin bat datoz barne logikaren analisia ikusita, naiz eta arlo batzuk ez bete. Kanpo logikan aldiz, desberdintasuna handiagoa izan da, beste arlotako pertsonak eta erakunde zein komunitatearekin ez delako erlaziorik egon.

Landu beharreko unitate didaktikoei dagokionez, orokorrean edukiak bete dira baina bi mailetan lehen laguntza – sorospena ez da landu. Beraz, zati handi batean unitate didaktikoak errespetatu eta landu dira.

7. BIBLIOGRAFIA

- Joseba, E., Clara, U., Pere, L., Francisco, L. and José Ignacio, A., 2015. El placer de descubrir en praxiología motriz: la etnomotricidad. *Acción motriz*, 15.
- Hernández Moreno, J., eta Rodríguez Ribas, J. (2004). *La praxiología motriz*. Barcelona: INDE.
- IES TIERRA ESTELLA – LIZARRALDEA BHI (2021). Qué Pretendemos – IES TIERRA ESTELLA · LIZARRALDEA BHI | IES Tierra Estella Lizarraldea BHI. 2021eko maiatzak 12an berreskuratua: <https://iestierraestella.educacion.navarra.es/web/que-pretendemos-ies-tierra-estella-lizarraldea-bhi/>
- Lagardera Otero, F., eta Lavega Burgués, P. (2003). *Introducción a la praxiología motriz*. Barcelona: Paidotribo.
- Lucio a., D. (1989). Educación y Pedagogía, Enseñanza y Didáctica: diferencias y relaciones. *Revista de la Universidad de La Salle*, (17), 35-46.
- Nafarroako Gobernua. 24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena. (2015). <https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/profesorado/curriculos-y-normativa/eso>
- OME (2021). Salud del adolescente y el joven adulto. 2021eko iralaik 11an berreskuratua: <https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/adolescents-health-risks-and-solutions>.
- Parlebas, P. (1981). *Contribution à un lexique commenté en science de l'action motrice*. Paris. INSEP.
- Parlebas, P. (1993). Educación Física Moderna y ciencia de la acción motriz. 1 Congreso Argentino de Educación Física y Ciencias, 8 al 12 de septiembre de 1993, La Plata, Argentina. EN: [Actas]. La Plata : Universidad Nacional de La Plata, Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación, Departamento de Educación Física. En Memoria Académica. Eskuragai: http://www.memoria.fahce.unlp.edu.ar/trab_eventos/ev.6853/ev.6853.pdf
- Parlebas, P. (2001). *Juegos, deporte y sociedades. Léxico de praxiología motriz*. Barcelona: Editorial Paidotribo.
- Parlebas P. (2010). DIDÁCTICA Y LÓGICA DE LAS ACTIVIDADES FÍSICAS DEPORTIVAS. *Educación Física Y Deporte*, 14(1), 9-26. Berreskuratua: <https://revistas.udea.edu.co/index.php/educacionfisicaydeporte/article/view/4608>
- Urdangarin Liebaert, C., & Etxebeste Otegi, J. (2005). *Euskal jokoak eta jolasa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.